



# Tolosako 36. Abesbatza Lehiaketa aurkeztu dute

**KALITATEA** ▶ «Kalitate handiko 26  
abiesbatza» etorriko dira aurten  
Tolosara lehiaketan parte hartzera

**OMENALDIA** ▶ Javier Bello Porturi  
eskainitako omenaldi-kontzertuak  
zabalduko du lehia hilaren 30ean ▶ 2



Donostian aurkeztu zuten atzo Abesbatza Lehiaketa Jesus Mari Alkainek, Lukas Mendikutek, Jokin Bildarratzek eta Imanol Agotek. IRATXE ETXEBESTE

**MIKEL NIEBE** ▶  
TXIRRINDULARIA



JAIONE ASTIBIA

«Ongi bukatu  
dut eta  
hasteko  
gogoz nago»

Denboraldian 50  
karrera inguru egin  
ditu leitzarrak ▶ 7

TOLOSA ▶

## Karrozen arazoan akordioa iristear

Lantaldea sortu dute  
udal ordezkariekin  
batera karrozek ▶ 4

ALEGIA ▶

## Kirol Kultur Etxearen kudeaketa aztergai

Udalak ez dio berritu  
kontratua enpresari ▶ 5

Urriak 24 zizurkil gola

**vii. Azoka**  
Berezia  
zizurkil

11:00-14:30  
16:00-19:30  
Berezia produktuen eta artizanen  
erakusketa, sarrerak, erakusketak, z...

12:00  
«Berezia» erakundearen aurkezpena...

14:00  
«Berezia» erakundearen aurkezpena...

15:00  
«Berezia» erakundearen aurkezpena...



Maria Luisa Irastorza. M.SORDA

**M.LUISA IRASTORZA** ▶  
MARGOLARIA

«Asko  
lasaitzen nau  
margotzeak;  
gauza bera  
gertatzen zait  
musikarekin»

Hernialdeko Ostatuan  
dago ikusgai  
bere koadroen  
erakusketa ▶ 6

## 36. ABESBATZA LEHIAKETA ▶



Kutxako Gizartekintzaren zuzendari Jesus Mari Alkainek, TEEko lehendakari Lukas Mendikutek, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta Foru Aldundiko kultur ordezkarri Imanol Agotek aurkeztu zuten atzo aurtengo Tolosako Abesbatza Lehiaketa Donostian, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. I. ETXEBESTE

## Ahots gozoez zain

Atzo aurkeztu zuten hilaren 27an hasiko den Tolosako 36. Abesbatza Lehiaketa; hogeita sei talde ariko dira, eta Bello Porturi egindako omenaldiak zabalduko du

### IRATXE ETXEBESTE

«Alkate izateak baditu pribilegio batzuk, eta beste hainbat gauzaren artean Goriziara (Italia) joateko aukera izan dut uda honetan, abesbatza lehiaketa batera. Hunkitu egin ninduen han ikusitakoak, eta zer pentsa eman zidan, abesten ari zirenean hainbat taldek euskara erabiltzen zutelako kantatzeko». Gisa horretara eman zion Tolosako alkate Jokin Bildarratzek aurtengo Tolosako Abesbatza Lehiaketa aurkezteko atzo goizean Eusko Jaurlaritzak Donostian duen egoitzan egin zuten ekitaldiari hasiera. Izan ere, mila pertsonen baino gehiagok ikasten dituzte urtero euskarazko abestiak Bildarratzen hitzetan, eta munduan zehar erabiltzen dituzte gero, lehiaketaz lehiaketa. «Kanpotik etorritakoak euskara ikastea eta za-

baltzea garrantzitsua da Tolosarentzat, Gipuzkoarentzat eta Euskal Herriarentzat», eta ildo horretan Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE) urteko urtera egin duen lana «goraipatzeko» dela irizten dio Bildarratzek.

Eskertzekotzat jo zuen, halaber, Foru Aldundiak Leidor aretoarekiko duen jarrera. Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erdibana finantzatu dute aretoa eraberritzeko proiektua, eta «plan berezi baten bidez» egingo du hori. Imanol Agotek, Foru Aldundiko kultur ordezkarriak, berretsi egin zuen Bildarratzek esandakoa, eta berritze lanak ahalik eta azkarren egitea eskatu zuen, abesbatza «sendotuta» dagoen lehiaketa izaki, Gipuzkoa mailako kultur zirkuitoa osatuko badu baliabide egokietan egitea «beharrezkoa» delako. Tolosako alkateak

esan zuen atzo [herenegun] itxi zela Leidorreko proiektuak aurkezteko epea, eta interesa sortu duelakoan da, batez ere izen handiko adituek egin dituztelako proposamenak.

Aurreko edizioetan bezala, «mundu guztiko abesbatzak etorriko dira aurtengo ere lehiaketan parte hartzerako». Horixe aurreratu zuen TEEko presidente Lukas Mendikutek atzo. Ahots nahasietako abesbatzak, ahots berdinetako abesbatzak, haur abesbatzak eta ahots taldeak ariko dira, eta gizonen abesbatzak bakarrik osatutako abesbatza bakarrak jardungo du: Iruñeko ahots baxuenak, hain zuzen ere. Abesbatza aipagarrienen inguruan galde-tuta, «errepertorio zailenak prestatzeko abilezia» duten Erresuma Batuko hiru abesbatza etorriko direla zioen Mendikutek, eta lehenengoz, Txinako

haurrak ariko direla nabarmendu nahi izan zuen.

### Hogeita sei abesbatza

Norvegiatik, Kubatik, Holandatik, Italiatik... leku askotatik etorriko dira lehiaketan parte hartuko duten abesbatzak, eta Mendikutek aburuz, «kalitate handikoak» dira guztiak. Kultur elkartruke hori oso garrantzitsua da Tolosako alkatearen ustetan, haiek «gure hizkuntza zaharrean kantatzen dutelako, eta, era berean, guri haien nortasunaren, kulturaren, ohituren eta abarren berri ematen digutelako, haiek inon konpartitu ditzagun».

26 abesbatzak jardungo dute hilaren 27tik aurrera Tolosan, eta horietatik hiru Euskal Herrikoak dira: Leioa, Iruñea eta Gasteizkoak. Guztienak izango dira ahots gozoak, ziur.

## Javier Bello Porturi omen

Euskal musikaren irudi garrantzitsuenetako bat hil zen Donostian 2004ko otsailaren 13an. Abesbatza eta orkestra zuzendari bezala, konpositore, orkestratzaile, musikologo, hizlari eta artikulu idazle gisa garatu zuen bere jarduna. Ase ezinezko jakinminez, gure herriko musika eta literatura ikertu zituen. Javier Bello Porturi zena oso gogoan du Tolosako herriak, eta hari omenaldia eginez hasiko da aurtengo Abesbatza Lehiaketa.

36. edizioa modu horretara hastea «egin beharrekoa» zen Jokin Bildarratzen hitzetan, omenaldi hori Tolosako Udalak eta herriak musikariarekin zuen «zorria» baita. Euskal kulturari hainbeste eman dion nortasun poliedrikoari omenaldi kontzertua egiteko TEERi lotu zaio Udala. «elegantzia fineko, modernotasun dotoreko eta sentikortasun leuneko abesbatza eta ahots egileak hori eta gehiago merezi duelako».

Bello Porturen urtebetetze egunean, hilaren 30ean, izango da kontzertua San Frantzisko elizan (20:30ean), eta ia ahaztuta dauden bere gaztaroko lanetatik abiatuta, Abesbatza Lehiaketan askotan programatutako bere errepertorio ezagunenak eskainiko dituzte, abesbatza eta ahots ibilbide bat planteatuz, bere azken konposaketa batzuk estreinatuz eta abestuz bukatzeko.

Ospe eta ibilbide ukaezineko hiru euskal abesbatza; Enrique Azurzak zuzendutako Hodeiertz eta KEA ahots taldea, Javier Bustok zuzendutako Kanta Cantemus Korua izeneko emakume taldea eta Josu Okifiena pianojolearen laguntza izango duen Al mudena Ortega sopranoa izango dira kontzertua eskainiko dutenak. «Berezia» izango da, alkatearen arabera. ◀



## 36. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Babesle Ofiziala

MERKATARITZA ▶

MADDI SOROA

**T**olosako zapatagileen kofradia 1616ko apirilaren 5ean sortu zen, Domingo Iriarte, garaiko erregearen eskribaua bertan zelarik. Gaur egun, Gipuzkoan bizirik dirauen kofradia bakarra da zapatariena eta honako hauek dira kideak: Mari Nieves Lizarribar, Garbiñe Alkiza, Alvaro Prada, Santos Tapia, David Khouri, Antonio Longaron, Jose Mari Jauregi, Ricardo Peñafiel, Andres Oiartzabal, Fernando Garcia, Jose Luis Domentxe, Jose Leon Egiguren, Luis Garmendia eta Jose Maria Arana; azken hau delarik kofradiako aurtengo presidentea.

Tolosako zapatarien kofradia sortu zenean, zapatagileek ezkur zentimo batzuk ordaindu beharko zituztela hitza eman zuten idatziz. Bildutako diruarekin, umezurtz nahiz alargun geratzen zirenei laguntzen zitzaizen, baita hainbat hileta elizkizun ordaindu ere. Maria Nieves Lizarribar kofradiako kideetako baten arabera «hasiera batean 100 pezeta inguru ematen zitzaizkien urtean, gerora, ordea, 200 pezetara igo zuten kopurua». Modu horretan, zapatagileen kofradiak gizarte laguntza moduan ere funtzionatzen zuela esan daiteke.

Lizarribarren hitzetan «bere garaian indar handia zuen kofradiak, bizitzeko modu bat zen. Oso talde boteretsua zen gainera, izan ere, lur sail, etxebizitza eta beste hainbat ondasun baitzituen beren esku. Gerrate karlisten ondoren, ordea, ondasunen agiriak desagertu eta harrezkero, inork ez daki zer gertatu zen».

**Lekukoa: bilera agiriak**

Kofradia sortu zenetik, zapatariek egiten zituzten bilerak agiritan biltzen joan dira urterik urte. Bilera agiriak, urtetan zehar Santa Maria parrokiako sakristian bildu izan dira, baina parrokiak jasan dituen sute ezberdinen ondorioz, desagertu egin dira. Gaur egun, 1859. urtekoa da zapatagileek eskuartean duten bilera agiriak zaharrena. Aipatu liburua, kofradiako kideen esku dago, oso altxor preziatutzat dutelarik. Izan ere, iragan urteetako idatziak edukitzeaz gain, Tolosako zapatarien bizimodua eta bitxi-

# Zapatarien kofradia bizirik da oraindik

1616an sortu zen eta Gipuzkoa osoan geratzen den kofradia bakarra da San Krispin eta San Krispiniano



Tolosako zapatarien kofradiako egungo kideak urteroko afarian, joan zen asteartean. MADDI SOROA

keria mordoak aurki baitaitezke bertan.

Bilera agirien ohitura mantentzeaz gain, batzar orokorra ospatzen da urtero. Aurten, hilaren 19an egin zen. Ondoren, kofradiako kideek afaria egin zuten gaueko 21:00etan Tolosako Kasinoan. Kofradiaren urtetako tradizioa jarraituz, afaltzen hasi aurretik hiru *Ave Maria* errezatuz zituzten. Urteroko batzar orokorrean, aurreko urteko bilera-agiria irakurtzen da, kideen onarpena izateko asmoz. Ondoren, urtean zehar egin diren jarduek mintzatu, diru kontuak aztertu... Amaitzeko, galdera eta eskakizunen tarteari ematen zaio pasoa.

Lizarribarren iritziz, «azken finean, helburu nagusia, hainbat urtetan zehar mantendu den kofradia galtzen ez utzea da, izan ere, 1616an sorturiko gauza bat ezin da desagertzen utzi». Gazteen esku dago bere etorkizuna.

## San Krispin eta San Krispiniano

San Krispin eta San Krispiniano zapatagileen zaindaria dira. Bere irudiak Tolosako Santa Maria parrokiak daude gordeta, sakristiaren alboan, hain zuzen ere.

Urtero bezala, zapatarien kofradiako kideek, San Krispin eta San Krispiniano zaindarien eguna ospatzen dute urriaren 25ean, etzi astelehena, hain zuzen ere. Beraz, Tolosako zapata denda asko itxita egoten dira.

Zapatagileen eguna ospatzeko, kofradiako zuzendaritzak meza santua antolatzen du Santa Maria parrokiaren 10:00etan. Meza honen bitartez, zaindaria omentzen dituzte. Behin meza amaitu ondoren, zapatarien kofradiako zapatagileek San Krispin eta San Krispiniano irudiak



Bi santuen irudiak. J.SAIZAR

bizkar gainean hartu eta buelta emango dute Santa Maria elizaren barruan.

Urriaren 25eko ospakizunaz gainera, gogoratu beharra dago, irudi hauek San Joan eguneko prozesioan ere parte hartzen dutela. Horrela, urtero legez, kofradiako kideen artean, San Krispin eta San Krispiniano irudiak kalera ateratzen dituzte.

Zapatarien kofradiak beren izena daraman loteria ere badu. Loteria ale bakoitzeko, 20 zentimo zapatarien kofradiara bideratzen da. Erosi nahi duenak zapatadendaren batean galde dezala. ◀

**NATURAL - NATURALAK**

*Mahala*

BASERIKO PRODUKTUAK

- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala baserria - 20491 LEABURU - Tel.-Faxa: 943 673 499 - Tel. Mug.: 689 805 633

*Beti Alai*

*jatetxea*

Garaian garaiko janariak

Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa). Pisu Gorosabel 40ean, 50.000.000 pta.

Salgai (Tolosa). Pisu altua igogailuarekin Nafarroa Eltorbidean, 49.000.000 pta.

Salgai (Tolosa). 3. pisua Araba Eltorbidean Egoera onean. Paseora begira.

Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremerterri kalean. Pizzeria edo bokaldetegi jartzeko egokia.

Alokatzeko (Tolosa). Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin

Alokatzeko (Tolosa). Nafarroa Eltorbidean garaje irekiak.

Alokatzeko (Tolosa). Garaje irekia Larremendi kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

## IBARRA ▶

**Ibarrak baja garrantzitsuak izango ditu gaur**

Partida baterako zigortu dituzte hainbat jokalarik eta Cesar Roca entrenatzailea

## I. TERRADILLOS

Gaur 18:30ean Ibarra areto futbol taldeak arratsaldeko Ibarako Belabieta kiroldegian jokatuko du Tuterako Ribera de Navarra taldearen aurka.

Erraza zirudien partida konplikatu egin zaie azken unean, eta dena orain hamaibost egun jokatu zuten Candésaren aurkako partidaren epaileak egin zuen lanagatik dator. Partida hartako aktan epaileek gehigarri bat bidali zuten adierazten zen.

Honen berririk izan gabe, Karrera, Prados eta Larza jokalariek eta Cesar Roca entrenatzaileak partida bateko zigorra dutela jakin berri dute.

Norgehiagoka osoan ez zuten inor kaleratu eta ez zen txartel urdinik erakutsi, beraz, taldeak ez du zigor horien zergatiak ulertzen.

Berria jakin orduko helegitea aurkeztu zuen elkarteak Madrilen. Zigor hauek taldeari kalte handia eragiten diote, eta gaurko partidaren jokalariek bajak nabaritu dituztela ez dago zalantzarik.

Bestalde, jubenilen taldeak, pasa den astean partida polita burutu eta gero, Bilbon jokatuko du Berriotxo taldearen aurka.

## TOLOSA ▶ INAUTERIAK

**Udala eta karrozen ordezkarien artean akordiora iristear**

Lan taldea sortu dute Udaleko eta karrozetako ordezkarien artean; negoziatorako jarrera azaldu du Udalak

## IÑIGO TERRADILLOS

Inauterietako karroza eta konpartsetan lanean aritzen direnak bilera izan zuten asteazken honetan Tolosako Kultur Etxean. Bilera egitearen arrazoiak, urteetan karroza hauetan lan egin ondoren izan dituzten arazoak konponbidea aurkitzen saiatzea zen.

Aztertu ziren puntu garrantzitsuenak hauek izan ziren: karrozak gordetzeko lekurik ez eta kanpoan utzi beharra izaten dituzte eta ondorioz asko hondatzen dira urtetik urtera, horregatik lokal bat uztea eskatzen diote Udalari.

Bestalde, karrozak asko hondatzen direla eta lapurretak ere jasaten dituztela kontuan hartuta, diru gehiago jarri beharra izaten dute, lehenbizi hauek konpontzeko eta ondoren urteroko itxurara egokitzeko. Gainera, aurrean, karrozek gutxienean neurri edo egoera bat izan behar dutela exijitu zuten Udalak eta horren kontra agertu ziren karrozetako ordezkariak.

**Akordioa gertu**

Asteazkeneko bilera eta gero karrozetako zenbait ordezkari, Jokin Monfort Festa Batzordeko teknikaria, Joselu Andueza



Karrozak gordetzeko lokala lortzea espero dute ordezkariak. HITZA

zinegotzia eta Olatz Peon zinegotzia bilera batean bildu ziren ostegunean puntu hauek guztiak aztertzeko.

Positiboa izan zela eta jarrera negoziatzailea izan zutela aipatzen dute karrozetako ordezkariak, eta bai beraiek eta baita udal ordezkariak ere gustura geratu zirela adostasuna gertu ikusten baitute.

Aurten sartu nahi zutenarekin, karrozei peritosa pasatzearena alegia, akordio batera iritsi eta ez dutela honekin aurrera egingo adierazi zuten udal ordezkariak.

Baina, karrozetan lana egiten dutenentzat puntu garrantzitsuenak lokal bat uztearena zen, eta badirudi hau ere azter-

tu eta baiezkoa emango dutela azkenean.

Ostegunean bildu zirenek lantalde bat osatu dute eta bilerak egingo dituzte akordio batera iristeko helburuarekin. Hurrengo bilera, azaroaren 3an izango dela iragarri dute. Hala ere, ez badira inongo akordiora iristen, hasieran esandakoa mantenduz, ez direla aterako edo karrozak dauden bezala aterako dituztela adierazi dute karrozen ordezkariak.

Aurrera begira karrozentzako diru laguntzak lortu nahi dituzte, gazteentzat, batez ere zailago izaten baita karrozak eraikitzea, gastu handia izaten baita beraientzat.

## BELAUNTZA ▶

**Biasteriko upeltegira irteera antolatu dute**

Ardoaren mundua hobeto ezagutzeko irteera antolatu du Belauntzako Udalak datorren azaroaren 14ean Biasteriko Heredad de Ugarte upeltegira. Upeltegia, kalatuak eta kobazuloak bisitatzeaz gain, ardo ezberdinen dastaketa egiteko aukera ere izango da. Ondoren upeltegiko bazkari bereziaz gozatu eta herri inguruak ezagutuko dira. Irteera 09:00etan izango da Belauntzako Andresko bidegurutzetik. 25 euro ordaindu beharko dute animatzen direnek eta bidaiak, upeltegiko bisita eta bazkaria sartuko dira prezio horretan. Izen-ematea, berriz, Belauntzako Kultur Etxean 17:30etik 20:00etara edo 943 67 00 20 telefonora deituz egin ahalgo da azaroaren 4a baino lehen.

## LIZARTZA ▶

**Ezker abertzalearen batzarra gaur**

Lizartzako ezker abertzaleak gaur batzarra izango dela adierazten du. Bertan, azken 10 urteotako balantzea egingo da, gaur egungo egoera politikoa aztertu eta aurrera begirako asmoak azalduko dira. Batzarra 16:00etan izango da udaletxean.

## BELAUNTZA ▶

**Jubilatuena Eguna ospatuko dute bihar herrian**

Urtero bezala, aurten ere Uli Mankomunitateak eta Belauntzako Udalak antolatutako, Jubilatuena Eguna ospatuko da bihar. Eguna 13:00etan egingo den meza-rekin hasiko da. Hau amaituta toka txapelketan jokatuko dute jubilatuak, eta ondoren, bazkaria egingo da. Bazkarian zehar, opariak banatuko dituzte izena eman dutenen artean. Eta bazkalostean, trikitilari eta bertsolariak alaituko dute giroa.

**Herri Irratia**  
RADIO POPULAR

**TOLOSALDEA**  
1224 AM | 87.9 FM  
99.8 FM | 94.8 FM

**BAR TXAPELDUN**  
EGUNEKO MENUA zator  
PLATER KONBINATUAK ezagutzera!  
Berria, 23 behe L-2 • Villabona

**www.tolosaldekohitza.info**  
▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ALEGIA ▶ UDALA

# Kirol Kultur Etxea kudeatzeko proposamena aztergai

Alegiako Udalak ez du berrituko Kirol Kultur Etxearen kudeaketa eramaten duen Kirol On enpresaren kontratua



Kirol On enpresak eraman du orain arte Kirol Kultur Etxearen kudeaketa. O.ESKITXABEL

## OLAIA ESKITXABEL

Alegiako Kirol Kultur Etxearen kudeaketaren inguruko bilera burutu zen herenegun udal-txean; hainbat teknikari eta batzordekide aurrerantzean zerbitzu hori eskaintzeko modua aztertzen aritu dira azken hila-beteotan; herenegungo bilera horretan proiektuaren azalpena egin zuten.

Orain arte Kirol On enpresa pribatuak eraman du Kirol Kultur Etxearen kudeaketa; abenduan amaitzen zaio kontratua eta Udalak beste proposamen berri bat garatu duenez, enpresa horri kontratua ez berritzea erabaki du.

Alegiako Udalak «kudeaketa zuzena» planteatu nahi du Kirol Kultur Etxerako, herriko alkatea den Olatz Amundarainek azaldu duenez.

Herenegungo bileran, Kirol Kultur Etxearen kudeaketarako proposamen orokorra azaldu zuten: «Gure asmoa Kirol Kultur Etxean bi langile jartzea da; Udalak zuzenean hartuko litzatekeen langileak irekitze eta harrera ordutegia ziurtatu beharok dute. Kultur teknikaria, Kirol Batzordearekin batera, dinamizazioaz, planifikazioaz, antolatetaz eta koordinazioaz arduratuko da. Beste langileak harreraren egotearen, kiroldegia garbitzeko... arduraz izango luke», azaldu du herriko alkatea.

Horretaz gain, Kirol Kultur

Etxearen gestioa, kudeaketa... enpresa pribatu bati egokituko zaiola azaldu du. Enpresa horren ardurapean geratuko litzateke ikastaroak antolatzea.

Hori oraindik proposamen bat besterik ez da; oraindik udalbatzarrean onartu gabe dagoela zehaztu du Amundarainek.

Aurrekontuari dagokionean ez luke aldaketa garrantzitsurik ekarriko, kostu ekonomikoari dagokionez: «Gaur egun kudeatzen duen enpresak hilean jasotzen dituen 6.500 euro inguruez gain kontutan izan behar da bertako bazkideek, ikastaroetako partaideek, eta erabiltzaileek ordaintzen dutena jasotzen duela. Kopuru horren inguruan ibiliko litzateke planteamendu berria».

## Proiektua osatzen

Kezka gehienak, bestalde, ikastaroetara joaten direnen eskutik iritsi ziren; ikastaroak mantenduko diren, zein ikastaro eskainiko diren... eta antzeko galdera ugari entzun ziren bileran zehar.

«Momentu honetan aerobik, mantenuko gimnastika, hiru-garren adineko gimnastika eta karate ikastaroak ematen dira; guztira 50 lagun inguru joaten dira ikastaroetara. Hori mantentzea eta zabaltzen joatea, bai ikastaroetan (bai parte-hartzean) izango litzateke proposamenaren eta batzordeen

helburua», azaldu du alkateak. Batzordekideen ustetan, proposamenak «dagoena mantentzeaz gain, kultur eta kirol dinamika berriak pizteko balio beharko du. Horretarako, jarriko diren teknikariez gain, batzorde desberdinek, herriko taldeek eta herritarrek orokorrean inplikatu beharko dute proiektuan».

Proposamenaren sakontzen joatean datza orain batzorde desberdinen lana. «Aurrekontu zehatzak prestatzea, langileen perfilak, eskaintza eta eskerak definitu eta deialdiak atzeratu behar da bertako bazkideek, ikastaroetako partaideek, eta erabiltzaileek ordaintzen dutena jasotzen duela. Kopuru horren inguruan ibiliko litzateke planteamendu berria».

Proiektua zehazten joan ahala, erabiltzaile eta herritar guztiengana iristeko asmoa dago, horiek, era berean, proposamenak, ideiak eta ekarpenak luzatzeko. Hala ere, ekimenaren bultzatzaileen ustetan, «bidea eginez egin beharko da eta proiektua martxan jarrita ere, guztien ekarpenekin joanga da osatzen eta zuzentzen».

Datorren astean, bestalde, bi bilera egingo dituzte udaletxean. Ogasun batzordea, datorren asteartean, urriaren 26ean, bilduko da 19:00etan.

Ostegunarra, urriaren 27an, udalbatzarrean egingo dute; 19:30ean hasiko da.

ALTZO ▶ KIROLA

## Adinekoentzako soinketa ikastaroaren inguruan

Irakasleak adinekoen kezak eta zalantzak argituko ditu astearteko bileran

## O.ESKITXABEL

Adinekoentzako soinketa ikastaroa antolatuko nahi du Altzoko Udalak. Ikastaroa «berreziki adinekoen zuzendua» egongo da: «Zahartzaroaren berezko gabeziei aurre egiteko ariketak egiteko aukera izango dute herriko adineko-

ek». Datorren astearteko, urriaren 26rako, bilera deitu du Udalak; bertan, adinekoek ikastaroaren inguruan dituzten zalantzak argitzea edota argibide gehiago jasotzeko aukera izango dute. Hori datorren asteartean, urriaren 26ean, izango da 17:30ean. Bileran, liburutegian izango da.

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

## Nagusiweb ikastaroa, datorren astean

Urrian ezezik azaroan zehar ere ikastaro ugari eskainiko dituzte KZgunean

## O.ESKITXABEL

Nagusiweb ikastaroa eskainiko da datorren astelehenerdik, urriaren 25etik urriaren 29ra bitarte.

Hamar orduko ikastaroa izango da eta bertan, «Interneti buruzko oinarriko jakintzak bereganatuko dituzte ikasleek», azaldu du Karlos

Buenok, Bidegoiango KZgune-tutoreak.

Bost egunetan luzatuko da Nagusiweb ikastaroa. Ordutegia, bestalde, 11:00etatik 13:00etara izango da.

Azaroan ere hainbat ikastaro izango dira. Edozein ikastaroetan izena emateko, 943 62 11 97 telefono zenbakira deitu dezakete.

**m**  
matraka

sexua  
kontakatuak  
elkarrizketak  
zinema  
erreportaiak  
zozketak  
agenda  
urriaren 20tik aurrera  
asteazkenero BERRIarekin  
ostegunero zure unibertsitatean  
Gazteon astekari berria



## HERNIALDE ▶ ERAKUSKETA



**Emakumea biluzik.** Velazquezek badu emakume lodi bat era horretan margoturiko koadroa eta Irastorzak, ideia beraz baliatuaz, honako koadro hau margotu du, emakumea, ordea, ez da lodia Velazquezen margoaren kasuan bezala. Koadro sentsuala eta mezu handikoa da. MADDI SOROA



**'Menina'.** Velazquezen *menina* emakume ospetsuetan inspiraturiko koadroa da. Kolore beroak eta oso biziekin egina dago, eta oso ikuspegi alaia eskaintzen du. M. SOROA



**Loreak.** Irastorzak oso gogoko du loreak marraztea, udan batez ere. Honako hau, Lizarran duten etxean margotu zuen udan inguruko eguzkiloreak kristalezko ontzian sartuaz. M. SOROA



**Eskusoinua.** Gazte-gaztetatik hasi zen eskusoinua jotzen eta makina bat txapelketa irabazi zuen. Gazte denbora ondoren ere, soinua jo izan du haibat saio berezietan. Koadro honen handitasunak, eskusoinuarekiko duen harremana islatzen du. M. SOROA



**Soinu tresnak.** Betidanik gustatu izan zaio musika. Soinujolea bazen ere, asko gustatzen zaio musika instrumentu ezberdinak marraztea. Hau, lau instrumentu ezberdinekin egindako bilduma da. Kolore apalak erabiliz, giro berezia sortzen du bilduma honek. M. SOROA

## MARIA LUISA IRASTORZA ▶ MARGOLARIA

## «Erretratoak egin nahiko nituzke, pinturaren gorenara da niretzat»

MADDI SOROA

Soinujole ospetsu gisa ezaguna den arren, Maria Luisa Irastorza margolaria ere bada. Tolosan jaio eta bizi izan da urte askoan, baina duela 14 urte Donostiara aldatu zuen bizitokia. Maiz etortzen da, ordea, besteak beste, etxeko negozioa Tolosan eta alaba Hernialden dituelako. Erakusketa, urriaren 31 arte egongo da ikusgai Hernialdeko ostatuan.

**Nondik dator kizua afizioa?**

Nire afizio nagusia musika izan da beti, baina ezkondu ondo-

ren musika alboratu egin nuen. Nire pentsamenduetan, ordea, betidanik izan nuen argi margotzen ikasi nahi nuela. Jubilatutik ondoren, ikastaroak egin nituen eta olio erabiliz egin nuen ikasi nuenean nire koadroak pintatzen hasi nintzen. **Zenbat denbora daramazu?** Duela 14 urte hasi nintzen pintatzen. Renaulten lana egiteari utzi eta Donostiara bizitzera joan nintzenean sartu nintzen pinturaren munduan.

**Zertan oinarritzen zara koadroak margotzerakoan?**

Denetatik margotzen dut, mu-

sika instrumentuak, Donostiako paisaiak, itsasoa, toreroak... Udaran, berriz, loreak margotzen ditut asko.

**Zer sentitzen duzu pintatzen duzunean?**

Asko lasaitzen nau margotzeak. Koadroan sartzen naizenean, ez dut ezertan pentsatzen; ez dut buru nahiz hankako minik sentitzen, min guztiak joaten zaizkit. Gauza bera gertatzen zait musikarekin.

**Zein margolari duzu gustuko?**

Hemen oso margolari onak daude. Teresa Rieraren erre-



MADDI SOROA

tratoak adibidez asko gustatzen zaizkit.

**Zein koadro duzu gustuko?**

Hainbeste gustatzen zait dena!

Estilo guztiak gustatzen zaizkit niri.

**Zure zein lan duzu gustuko?**

Duela gutxi lau koadro egin ditut *collage* estiloan. Soinua jotzen nuen garaiko partituren gainean musika tresnak margotu ditut. Horietako batean, *Katuska* obraren partitura jarri dut, Sorozabal omendu nahian. Oso politik geratu dira eta oso oroitzapen onak dakartzidate.

**Zein da buruan bueltaka duzun koadroa?**

Erretratoak egin nahiko nituzke, pinturaren gorenara da.

**Zer sentitzen duzu zure koadroen erakusketa ikustean?**

Lotsatu egiten naiz, jendeak nik eginiko gauzak ikusten dituenean. Lotsa izateaz gain, ordea, oso harro sentitzen naiz.

MIKEL NIEBE ▶ TXIRRINDULARIA

# «Aurten oso ongi bukatu dut eta berriz ere hasteko gogoz nago»

Denboraldian 50 karrera inguru egin ditu Euskal Herriko errepidetan barrena; dagoeneko negu aldiko mantenimendu saioekin ari da

JAIONE ASTIBIA

Urriaren 3an bukatu zuen aurten denboraldia, Leitzako 20 urteko txirrindulari gazte honek. Bukatu ere garaipenarekin egin zuen, II. Salurtregi Saria eskuratu baitzuen egun horretan, Bilbon, Lehendakari Txapelketaren barrenean. Afizionatuen mailan, Caja Rural taldean aritzen den txirrindulari hau, Mikel Niebe da eta berekin egon da HITZA, aurten denboraldiaz galdetzeko eta bide batez, bere kirol jarduna ezagutzeko ere bai.

## Noiztik txirrindularitza?

Hasieran, pilotan, futbolean, igerian, denetik egiten nuen. Horietan txarra nintzen eta bizikletan hobeki moldatzen nintzen, honetan jarraitu nuen.

## Non hasi zinen?

Hemen, Leitzan, Aizan txirrindulari eskolan, 9-10 urterekin. Indurainen garaia zen eta 25 bat hasi ginen.

## Orain ez zabilzate hainbeste.

Ez. Kadeteetan, hasiera hartan, 25ak, baina jubeniletan gutxi-xeago gelditu ginen eta orain Sagastibeltzak ere jarraitzen du, nitaz aparte.

## Orain talde batean zabilzate?

Bai. Duela bi urte jubeniletan nengoela, Caja Ruralek fitxatu ninduen, afizionatutarako.

## Baina ikasi ere egiten duzu?

Bai. Tolosan Goi Mailako Zikloa egiten ari naiz, Sistema Automaticoen Erregulazio eta Kontrola. Eta handik etorritakoan, arratsaldetan, bizikleta.

## Non ibiltzen zarete?


Taldeak Espainiako karrera guztietan du ordezkaritza. Baina ni, Euskal Herrian ibiltzen naiz gehienbat, nahiz eta Espainiako Kordoba, Leon eta Kantabriaren ere parte hartu izan dudana.

## Beti bidean beraz.

Egia esan bai. Sariketak, asteburuetan izaten dira eta horietan ibiltzen naiz ni. Itzuliak, Nafarroa, Goierri, Bizkaia, Bidasoan izaten ditugu. Nik azken hau egin dut aurten.

## Denboraldia noiz hasten da?

Berez otsailean, baina aurten elurrengatik martxoan hasi ginen. Egutegi bat izaten dugu asteburuko karrerekin eta hori osatuz joaten gara. Urtarrilean talde osoa elkartzen gara entrenatzeko eta aste bat egiten



JAIONE ASTIBIA

dugu kontzentratuta hotel tiki batean. Han ematen digute egutegiaren berri eta prestaketa serioa egiten hasten gara.

## Zenbat karrera egiten dituzue, banaz beste?

Martxotik irailera, normalean orduan bukatzen baitugu, aurten urrian egin badugu ere, 50 karrera egiten ditut. Asteburu guztietan eta udaran, astez ere izaten ditugu karrerak.

## Halako ahaleginari aurre egiteko prestaketa ere tamaina berekoa izanzen duzue, bada?

Denboraldian, martxotik irailera, egunero ibiltzen gara bizikletaz: astelehenean 50 kilometro, asteartez 70 eta asteazkenez 120, eta gero berriz, jetsiz joateko; asteburuan, larunbat-igandetan, karrera.

## Zeron kabuz egiten duzue?

Taldeko medikuak ezartzen digu prestaketen pautak hori eta berak egiten digu jarraipena ere. Baina eguneroko lan hori betetzea geronen konpromisoa da.

## Bizikleta hartu eta segi?

Bai. Uitzitik barrena, kamioz kamio, Ultzaman barrena ibiltzen naiz asko. Eguraldi txarrekin, berriz, autoz Iruñea aldera joan eta handik behera ibiltzen naiz.

## Zer postu duzu taldean?

Karrera gehienetan lana egitea suertatzen zait, zaharragoak badaudelako. Baina batzuetan neronek ere lagundu didate. Normalean indartsuen dagoenari laguntzen zaio eta hori karreraren goazen bitartean erabakitzen da.

## Zer nolako emaitzak lortu dituzue?

Taldeak emaitza oso onak eskuratu ditu, 22 karrera irabazi baititugu. Entrenatzailea, Oskar Guerrero, oso gustura dago behinik behin.

## Eta zuk, zerorrek?

Aurten karrera bat irabazi dut, 19-20 urteko txirrindulariek jokatzen dugu horretan eta Lehendakari Txapelketako sari-keta bat da —Salurtregi saria—. Taldearentzat lehendabiziko aldian izan da horren irabaztun ateratzea. Orokorrean ere bosgarren lekuan gelditu naiz.

## Gustura, beraz?

Bai, oso. 120 txirrindularitak bosgarren lekuan gelditzea, beti ongi dago. Niretzat bai behinik behin! Txapelketa hori Gorka Lizarragak, ttitkan hemen bizi izan zena ere, irabazi zuen.

## Denboraldia bukatu duzue

## eta orain atsedean hartu beharke, ez?

Orain ez dugu karrerarik izanen, martxoa arte, alde horretatik lasaia ibiliko gara. Baina ezin gaitezke deus egin gabe egon, geron martxa jarraitu behar dugu.

## Zer esan nahi duzu?

Bada, neguan, orain, laisterka ibili, mendira joan, igeri egin... horrelako ariketak egiten ditugu, eta bagabiltza jada, guztia fondo pixka bat egiteko.

## Eta hurrengo urtean berriz ekin?

Martxoan. Aurten oso ongi bukatu dut denboraldia eta berriz hasteko gogoz nago.

## Zein helburu duzu txirrindularitza?

Ongi ibiltzea. Profesional izatea iritsi nahi nuke. Oraindik gaztea naiz eta urte pare bat edo badituzte hori lantzeko.

## Aukerak badituzu, beraz?

Gure taldea afizionatuen mailan aritzen da eta profesionalen talderen batekin fitxatu beharke gintuzke. Baina orain, badirudi, talde profesionala sortu nahian ari direla gurean ere, ekipo handi baten filial gisa, harrobi modura gurea hartuz, eta akaso hortik etorriko da.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaldia.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldia.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
 ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111  
 ▶ San Esteban: 00 68 00  
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
 ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
 ▶ DYA: 67 25 36  
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Iturrioz, Euskal Herria, 3, (Ibarra). 943 67 09 15.  
**Erbiti, Lizarraga, 7, (Leitza).** 112.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
 villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaldia.** 687 41 00 22  
 anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldia.** 687 41 00 32.  
 ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitza.** 687 41 01 18.  
 leitza@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### GALDUTAKOAK

**Tolosa.** Urriaren 9an argazki kamara galdu genuen Igarondo kalean (bialean). Inork argibiderik badu, deitu 650 69 24 57 telefonora.

### LANA

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Tolosaldeko taberna batean, lau orduz lan egiteko. 943 69 43 13 telefonora deitu, 14:00etatik 15:00etara.

### SALGAI

**Autoa.** Peugeot Partner burria; 1.900 Diesel. Oso egoera onean. Deitu 609 84 61 57 telefonora.  
**Autoa.** Renault Laguna, 1.900 Diesel, 100 zaldi, Tope Gama. Telefonoa: 636 38 65 27.  
**Txakurrak.** Pastor Aleman arrazako txakurrumeak salgai, bi hilabetekoak. Interesatuek deitu: 943 68 31 86 (09:00etatik 13:00etara).

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 23a, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola, Arceña, Balaran, Belduza, Berastegi, Edoan, Herriak, Ibarra, Iruja, Lantada, Leizor, Lizartza, Orendan, Oresa, Tolosa, Vilabona, Zurkili

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jauriaritza,  
Kultura Saila

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

22

hotzera

15

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### ANTZERKIA

**Areso.** Pantha Rei taldearen *Txinbillipurdi erregea* antzezlanaren udal arretan 18:30ean.

### DEIALDIAK

**Ibarra-Tolosa.** Kabxalin elkarteak (Bularreko Minbiziaren Emakumeen Elkarte) mahaiak jarriko ditu bular minbiziaren ikerketari egiteko diru laguntza jasotzeko.

**ETB 2.** Angel Cuerdoren *Nilo, Afrikako alborra* 09:00etan. Bihar, *Zambeze, ibai basatia*, ordu berean.

**Lizartza.** Ezker abertzalearen batzarra. Udaletxean 16:00etan.

**Tolosa.** Sinadura bilketa Tolosa Bizirik-en alde. Kalean goizean zehar.

**Tolosa.** *Graffiti* erakustaldia 10:00etan; *skate* txapelketa DJ-ekin 16:00etan; eta Afrika eta Bad sound systemen kontzertua 22:30ean. Bonberenean.

**Tolosa.** Otoitzaldia eta erretiroa Santa Maria elizan 10:30etik 12:00etara.

### ERAKUSKETAK

**Hernalde.** Maria Luisa Irastorzaren olioak. Ostatuan.

**Ibarra.** *Ogibideak eta lambideak.* Benito Izagirre kultur etxean.

**Leizta.** Pako Zufiaurren argazkiak. Torrearen tabernan.

**Tolosa.** Maria Luisa Irastorzaren koadroak. Lanbroa tabernan

**Tolosa.** Nerea Lopezen koadroak. Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Ana Gonzalez Atorrasagasti. Lore lehorrak. Saikin tabernan.

### GOIKO IRRATIA (FM 107)

**Tolosaldea.** *Kornerra* irratsaioa. 13:00etan.

### MUSIKA

**Oresa.** Ruper Ordorika abeslariaren kontzertua 22:30ean plazan. Kultur Hamabostaliaren barruan.

### ZINEMA

**Tolosa.** *El fuego de la venganza.* Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

# Otik 200era, hamaika lan

**TOLOSALDEA** ▶ 200. zenbakira iritsi da 'Galtzaundi' aldizkaria; hamahiru urteko lan eskergea egin du euskararen normalizazioan



Aldizkariak itxura aldaketa batzuk izan ditu urte luze hauetan zehar: kolorea, maketazioa... I. LEXEBESTE

JOXEMI SAIZAR

**B**adirudi atzo bertan izan zela, baina hamahiru urte eta 200 zenbaki pasatu dira. *Galtzaundi*ren 0. zenbaki hura inprimategitik ekarri nuenean, Kultur Etxeko aurkezpenaren bildutako guztion esku guztiak zikindu zituen aldizkariaren tinta frexkoak.

Tolosaldeko entziklopedia bizia dela aldizkaria esan nuen halako urteurren batean. Eta halaxe da 23 herrietako urtez urteko bilakaera jaso du kulturaren, kirolean, gizartearen, politikan, ekonomian... Euskaldekoko pertsona askori bere bizitzako lehen elkarrizketa egin die aldizkari honek. Eta besteok lehen aldiz hor ikusi ditugu on-

doko bizilagunak, albistearen protagonista bihurtuta. «Hilero 36 orrialde betetzeko gaiak izango al dituzue?», galdetzen zuten askok hasiera haietan. Baietz frogatu du erraz.

Euskaraz irakurtzen ere jende asko horrela hasi da eskualdean. Batzuk argazkiak «irakurtzen» dituzte. «No entiendo mucho, pero siempre miro las

fotos», entzun behar izan dut behin baino gehiagotan. «¿No podría hacer lo mismo pero en castellano?», beste batek. Eta hori entzundakoan orduan eta gusturago. Ondo ari garen seinale! Interesa pizten du eta jendeak gustura hartzen du. Euskararen normalizazioan egindako lan itzela hor dago.

Aldizkaria Galtzaundi Euskara Taldearen ispi luze eta ikur izan da urte hauetan, taldea 1990ean sortu zenetik. Taldearen beste atalek ere bere lana dute: normalizazioa, kultura, Foruma, autobusak... Ez dugu ahaztu behar.

Handik hilabete gutxira, 1991ko maiatzean, sortu genuen ilusio, gogo eta ezjakintasun handia genuen batzuk. Hamahiru urte pasatu dira eta 200. zenbakira iritsi da. Lehen Tolosaldean egindako saio guztiak —batzuk izan ziren— ez zuten hori sekula lortu.

Hamahiru urte luze hauetan bilakaera luzea ezagutu du aldizkariak. Sailak aldatu dira, itxura berri du, lantaldea ere bai, maiztasuna, kolorea sartu da... Aldaketa horiek guztiak hobera, noski. Baina helburua bera da: herriko informazioa euskaraz eman eta herritarrek euskaraz irakurtzera ohitu. Ez da lan makala!

## AGURRAK ▶



## ZORION AGURRAK ▶

**HITZA,**  
zorion agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5. beheko  
TOLOSA  
Udaletzeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!



### URTE ASKOAN

Laiene Izagirre. Urte bat.  
Aita, ama eta anaia Ohiarren partetik muxu potolo bat.

